
ARRASATEKO UDALERRIKO ESTAZIONAMENDU ARAUTUKO UDAL ZERBITZUA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA.

Udalbatzarrak 1998.04.27an onartua

I. KAPITULUA.- ORDENANTZAREN HELBURUA. APLIKAZIO EREMUA.

1. Artikulua

Hona hemen Ordenantza honen helburuak: batetik, Laubideko udal parkinean ibilgailuen estazionamenduen funtzioa, espazioa eta denbora arautuz, trafikoa antolatu eta hobetzea eta, bestetik, neurriak hartzea, bete egingo direla bermatzeko.

2. Artikulua.

Laubideko udal parkinean estazionatzeko denbora mugatzea dakar arautze horrek. Indarrean sartuko da arautze hori, legeak eskatzen dituen tramiteak bete eta gero. Halaber, dagozkion bitartekoen bidez, gutxienez 15 egun lehenago, araudi hau noiz hasiko den ezartzen adieraziko du Alkate-Udalburuak.

3. Artikulua.

Trafikoa hobetzeko, Arrasateko Udalak beste aparkaleku batzuk eduki ahal izango ditu, jendeak erabil ditzan Alkate-Udalburuak dekretuz ezarritako baldintzetan. Bandoen bidez argitaratuko dira baldintza horiek.

2. KAPITULUA.- IZAERA OROKORREKO ARAUAK, ESTAZIONATZEKO DENBORA MUGATZETIK KANPO UZTEN DIREN KASUAK ARAUTZEN DITUZTENAK.

4. Artikulua.

Estazionatzeko denbora mugatzetik kanpo utziko dira eta estazionamendu berezizat joko dira, Arrasateko Udalak izaera horrekin baimendutako estazionamendu guztiak, afektatuta dauden interesatuek eskatu eta gero.

5. Artikulua.

4. artikuluaaren ondorioetarako, estazionamendu bereziko txartelak edukiko ditu Arrasateko Udalak.

6. Artikulua.

Egoki iritzitako dokumentuak erakusteko eskatu ahal izango dio Arrasateko Udalak interesatuari, behar bezala justifikatuta agertzen ez den edozein gai kreditatzeko, estazionamendu berezien kasurako.

7. Artikulua.

Edozein txartel berezi behar ez bezala erabiliz gero, aurrikusitako santzioez gain, txartela deuseztuko zaio eta beste edozein txartel ukatuko zaio bere garaian txartela eskatu eta hura lortu zuen eskatzaileari.

3. KAPITULUA.- ESTAZIONATZEKO DENBORA MUGATZEKO ARAUAK.

8. Artikulua.

Laubideko udal parkinean gehienez ere 480 minutu (8 ordu) jarraian ezarri da hasieran estazionatzeko denboraren muga, lanegunetan astelehenik eguakotzera bitartean, goizeko 8:00etatik iluntzeko 21:00 arte eta zapatu eta domeketan goizeko 8:00etatik arratsaldeko

19:30 arte. Alkate Udalburuak ahalmena du gehieneko aldi hori eta Ordenantza honetako egunak, orduak eta aplikazio eremuak aldatu, handitu edo murrizteko. Horren guztiaren ostean, horren berri emango zaio Udalbatzarrari.

Ondorio horietarako, denbora mugatuan estazionatzeko eskubidea ematen duten tiketak banatzeko mekanismoa edukiko du Arrasateko Udalak.

Hartarako egokitu diren lekuetan eta makinetan erosi behar dira tiket horiek, dagokion Ordenantza Fiskalean zehaztutako baldintzetan eta han datorren kopuruaren truke.

9. Artikulua.

Ordenantza honen eraginpean dagoen eremuan estazionatzeko, baldintza hauek bete behar dira:

1) Tiketa erakustea ibilgailuko haizetakoaren barrualdean, kanpoaldetik ikusteko moduan. Tiketak duen denbora balioa erakutsiko da, eta tiketok hartarako jartzen diren parkimetroetan jasoko dira.

2) Leku berean ibilgailu batek egoteko duen gehieneko denbora igarotakoan, ibilgailua atera egin behar da handik, eta lehen zegoen lekuan ezin izango da estazionatu hurrengo bi orduetan

10. Artikulua.

Ordenantza bete egingo dela bermatzeko, kontrol zerbitzu bat ezarri da. Behar diren pertsonak nahiz materialak izango ditu zerbitzu horrek, eta indarrean dagoen kontratu araudian aurrikusitako edozein gestio eraren bidez eman ahal izango du zerbitzu hori.

11. Artikulua.

Alkate-Udalburuak, Mantenimendu eta Zerbitzuetako Sailak arrazoiz proposatuta, aldi baterako geldiarazi ahal izango du Ordenantza hau aplikatzea, trafiko estuasuna eta estazionalakuen dentsitatea murriztea aurrikusten den aldietan edo egunetan.

Halaber, eta baldintza beretan, deuseztu egin ahal izango da Ordenantza aplikatzea, beti ere behar bezala motibaturik trafikoan eta estazionalakuetan edozein eratan eragiten duten beste kausa batzuk egonez gero.

4. KAPITULUA.- ARAU HAUSTEAK ETA SANTZIOAK.

12. Artikulua.

1) Ordenantza honetako edozein artikuluren arauak hautsiz gero eta Alkate-Udalburuak ordenantza horri buruz emandako erabakiak hautsiz gero, arau haustetzat joko dira trafiko eta zirkulazio ordenazioko arauei dagokienez, eta horren ondorioz santzioak ezarriko dira, legez ezarritako prozeduraren bidez.

2) Hauek izango dira arau-haustek:

a) Denbora mugatuan estazionatzeko eskubidea ematen duen tiketa eduki gabe edo behar bezala erakutsi gabe estazionatzea.

b) Parkineko tiketean adierazten den estazionamendu denbora igarotzea.

c) Leku berean estazionatzea berriro, estazionatzeko gehieneko denbora amaitutakoan eta 9. artikuluan aurrikusitako bi orduko epea igaro gabe.

d) "Estazionamendu bereziko erabilera txartelik" gabe estazionatzea edo ez jartzea ikusteko moduko lekuan.

e) Manipulatu edo faltsifikatutako "estazionamendu bereziko erabilera txartela" erabiltzea.

f) Deuseztu, iraungi eta egokia ez den "estazionamendu bereziko erabilera txartela" erabiltzea.

g) Txartel berezietako edozein behar bezala ez erabiltzea.

h) Ordenantza honetan ezarritako arauak behin eta berriro ez betetzea.

13. Artikulua.

12.2 artikuluan tipifikaturik dauden arau hausteak 5.000 pezetako isunaz santzionatuko dira, eta hala badagokio txartel berezia kenduko zaio artikuluko horretako d, e, f, g eta h ataletan aurrikusitako kasuetan. Hartarako, horri buruz legez ezarritako bitartekoak erabiliko dira. Aurrekoa gorabehera, 2.500 pezetakoa izango da salaketa deusezteko zenbatekoa. Goian aipatu den isunaren santzioaren zenbatekoa haunditu egin ahal izango du Alkate-Udalburuak, indarrean dagoen araudian ezarritako gehieneko mugarekin.

14. Artikulua.

12.2 artikuluan tipifikaturik dauden arauak hautsiz gero, aurreko artikuluan aipatzen diren santzioak gorabehera, aparkalekuan behar baino denbora luzeagoan egoteari dagokion kopurua bider 2 kobratuko zaio santziodunari.

15. Artikulua.

Ordenantza honetan eta, hala badagokio, atzetiko arauetan xedatutakoa gorabehera, Zirkulazio Kodean eta hari buruzko Araudian ezarritako murrizteak, debekuak eta santzioak ere hartuko dira kontuan.

BUKAERAKO XEDAPENA

Udalak behin-betikoz ordenantza onartu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean haren testua argitaratu ondoren, eta Toki Araubideko oinarri-arauak arautzen dituen 7/85 Legearen 65.2 atalari buruz 70. artikuluan adierazten den epea igarotakoan sartuko da indarrean Ordenantza hau.